



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

Izaskun Bilbao politikaren moduak eta hizkerak aldatzearen alde agertu da

## PARLAMAUTOAK DEMOKRAZIA ELEKTRONIKOAREN GAINEKO EUROPAR SARI BAT JASO DU PARISEN

E-demokraziako Munduko Foroa zortzigarren aldiz bildu da, oraingoan Parisen, Issy-les Molineaux-en, eta Eusko Legebiltzarraren Parlauto programari [e-Democracy Awards 2007](#) saria eman dio. Teknologia berriak demokrazia indartzeko asmoarekin erabiltzearen inguruko ekimen interesgarrienei eman ohi zaien saria da hori. Legebiltzarburuak, Izaskun Bilbaok, saria jasotzerakoan, Legebiltzarrak ateak zabal-zabalik aritzeko duen asmo betea azpimarratu du, "politika egiteko erabiltzen ditugun moduak, hizkerak eta prozedurak aldatzen laguntzeko asmo betea, gaur egun erakundeen eta herritarren artean den amildegia soilik konfiantza sortuz eta boterea benetan partekatuz berdinduko baitugu".

Parlautoari saria eman dion erakundeak urtero bilatzen ditu Frantziatik at, Europan eta mundu osoan, teknologia berriak demokrazia hobetzeko erabiltzeko egiten dituzten proposamenengatik nabarmentzen diren esperientziak. Aurten, saria beste erakunde batzuekin batera antolatu da, antolatu ere [Politics Online](#) Estatu Batuetako atari ospetsuarekin, Europako Institutu Politeknikoarekin eta [Hyper Republic Club](#)-arekin.

Saria jasotzeko aukeraturiko euskal kanpainaren xedea, Eusko Legebiltzarrari buruzko informazio eta parte-hartze elektronikozko zerbitzuak hedatzea da, Euskadin zehar autobus baten barruan, Parlauto deiturikoan, udalerriz udalerrira dabilen gela ibiltari baten bitartez. Ekimena joan den urteko abenduan hasi zen. Ordutik hona, ia hogeita hamar mila pertsonak hartu du parte, eta ikusi Legebiltzarreko jarduerari jarrai dakiokela eta baita bertan parte hartu ere, herritarren parte-hartzea sustatzeko bi programen bidez: [Zabalik](#) eta [Parte Hartu](#).

### Estrategia oso baten aldeko saria

Bi ekimen horiek azken bost urteotan, Legebiltzarraren eta ordeztzen dituen herritarren arteko harremanak hobetzeko abian jarritako esperientzia baten parte dira. Gardentasunak eta parte-hartzeak dute ekimen horren ardatza osatzen, eta horren osagarri balore demokratikoak sustatzeko eta erakunde honek eraginen trukerako ematen dituen aukerak ezagutzera emateko lana dugu.

Estrategiaren oinarria Legebiltzarraren gai guztien gainean dagoen dokumentazio oro sortu ahala web orrian eskaintzean datza, bai eta edozeini behar duen dokumentazioa Legebiltzarraren hizkera eta prozedurak ezagutu gabe ere atzemateko aukera ematen dioten aplikazioak garatzean. Filosofia horren azken emaitza diren bi aplikazioen izenak "Zabalik" eta "Parte Hartu" dira, hau da, zabalik izan nahia eta parte hartzea deitzea dituzte adierazten.

Lehen programak edozein erabiltzailerik, erakunde nahiz norbanakoari aukeran eskaintzen dizkio interesekoak zaizkion Legebiltzarraren ekimen edota gaiak, haien harpidedun egin eta astero horien gaineko zeinahi berri bada hura jaso dezan. Eskatu duen informazioa gordetzen duten dossier elektronikotara jotzeko loturak eskaintzen dizkiote mezuek. Horrela tramitazioa hasi eta amaitu arterainoko informazio guztia jaso dezake. Dossier horiek idatzizko nola ikus-entzunezko informazioa daramate. Erabiltzaileak, horrela, legebiltzarkideek erabiltzen duten material idatzi oro ikus dezake eta interesekoa zaion eztabaida oro, hala batzorde nola osoko bilkurakoak, grabatu ondoren ikusi. Horrez gain, zerbitzuak eskaintzen dizkio erabiltzaileak hautaturiko gaien artean hurrengo astean eztabaidatzeko direnak. Horrela eztabaiden jarraipena errazten zaio, Interneten bidez zuzenean ematen baitira. Gaur egun Eusko Legebiltzarrak zerbitzu horren ia 1600 erabiltzaile ditu.





Zabalik zerbitzuak, gainera, erabiltzaileari interesekoak zaizkion ekimenak eztabaidatuko dituzten osoko bilkuretara joateko erreserba egiteko aukera ematen dio ere, eta bide zuzena eskaintzen, parte hartzeko "Participa-Parte Hartu" zerbitzurako, 2007 hastearekin abian jarritakorako. Zerbitzu horrek erabiltzaileei legebiltzar-taldeei zuzenean ekarpenak edota galderak egiteko aukera die ematen. Herritarren ekimenak argitaratu eta legebiltzarkideek publikoki erantzuten dituzte ere. Oraindaino herritarren ia bostehun proposamen jaso ditugu, eta %80a edo erantzun ditugu. Proposamenetatik %20ak legegileen erabaki edota egiteko jakinak ekarri ditu, bai Legebiltzarraren barruan, bai eta beste erakundeen aitzinean ere.

Zerbitzu horiek ezagutzera emate aldera, Eusko Legebiltzarrak gela ibiltaria, Parlamauto deiturikoa, jarri du abian, herriz herri Euskadin zehar ibil dadin. Horretarako propio prestatutako monitore batek azaltzen die elkarte, kolektibo, herritar eta jendeari oro har, nola funtzionatzen duten bi tresna horiek; argibideak emateko 20 minutu eta ordu erdi artean behar da. Urte erdian 400dik goiti talde eta elkarte eta ia 20.000 norbanako hartu ditugu autobusean, Euskadiko 30etik gora udalerritan. Estrategia hori osatuko dugu, heldu diren urteotan telebista digitalez aukera horiek hedatuz.

Parlamautoarekin burutu da Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarrak (EELB) diseinatu zuen irekitze-eredu baten lehen fasea; beraren xedea parte hartzeko erakundeak gizartearen eta hiritarren aurrean hedapena ahalik eta gehien zabaltzea da; gainera, hiritarren parte hartzearen balorea suspertu nahi du kontu eta auzi publikoetan. Saria merezi ahal izateko dohainak, hain zuzen ere, kanpainaren izaera integrala, planteamendu pertsonalizatu eta segmentatua, eta zabaltzen dituen zerbitzuen berritasuna dira. Abian jarri zenetik amaiera arte, Parlamautoa Euskal Autonomia Erkidegoko berrogeita hamar baino udalerrri gehiagotan izanen da.

Gainera, Parlamautoren esperientziarekin batera, boto elektronikoaren zerbitzuaren *demo* bat dugu, hura bezala Euskadin diseinatu; horren bitartez, Issy-ko foroan parte hartzen dutenak, beren aburuz aurrerantzean ezagutza eta informazioa elkartrukatzeko tresna gisa aukera gehien izango dituzten bideak hautatzen ari dira egunotan. Erakusleihu horretan [Demotek](#) sistemak bere eraginkortasuna erakutsi lezake; izan ere, boto-irakurgailuaz eta datuak igortzeko ekipoz hornituriko hautestontzia da, eta arinago bihurtzen du boto-zenbaketa.

LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIAREKIN ELKARRIZKETA HITZARTZEKO, DELA ZUZENEKOA, DELA GRABATUA, DEITU HONAKO TELEFONO ZENBAKI HONETARA: 679484376.





## Izaskun Bilbao aboga por cambiar formas modos y lenguajes de la política

### EL PARLAMAUTO RECIBE EN PARÍS UN PREMIO EUROPEO SOBRE DEMOCRACIA ELECTRÓNICA

El [Foro Mundial de e-Democracia](#), que celebra su octava edición en Issy-les-Molineaux (París) ha concedido hoy al programa Parlamauto del Parlamento Vasco el premio [e-Democracy Awards 2007](#), que se concede a las iniciativas más interesantes en el campo de la aplicación de las nuevas tecnologías para fortalecer la democracia. La presidenta de la Cámara, Izaskun Bilbao, ha destacado al recoger el galardón la vocación de la Cámara por alcanzar el máximo grado de apertura y "contribuir a cambiar los modos, los lenguajes y los procedimientos que utilizamos para hacer política, porque sólo generando confianza a base de compartir de verdad el poder superaremos el actual alejamiento entre instituciones y ciudadanía".

La organización que ha concedido el premio al Parlamauto busca cada año experiencias fuera de Francia, en Europa y el mundo, destacadas por la propuesta que plantean de utilizar las nuevas tecnologías para mejorar la democracia. En esta edición el galardón se ha organizado en colaboración con el prestigioso portal americano [Politics Online](#), el Instituto Politécnico Europeo y el [Hyper Republic Club](#).

La campaña vasca que ha sido seleccionada para este reconocimiento pretende difundir los servicios de información y participación digital de que dispone el Parlamento Vasco a través de un aula móvil que recorre los municipios de Euskadi a bordo de un autobús, el Parlamauto. La iniciativa comenzó en diciembre pasado. Desde entonces, han participado cerca de treinta mil personas, y han comprobado que es posible seguir la actividad parlamentaria y participar en ella, por medio de los programas de participación ciudadana [Zabalik](#) y [Parte Hartu](#).

#### Premio a una estrategia global.

Ambas iniciativas forman parte de la experiencia puesta en marcha en los últimos cinco años para mejorar las relaciones entre la Cámara y la ciudadanía a la que representa. La transparencia y la participación son los ejes de esta iniciativa, que se completa con un trabajo de promoción de los valores democráticos y de difusión de las posibilidades de interacción que esta institución ofrece.

La estrategia se basa en la publicación en tiempo real en soporte web de toda la documentación disponible sobre los asuntos parlamentarios, y en el desarrollo de aplicaciones que permiten, a todo tipo de público, localizar la información que necesita sin necesidad de conocer el lenguaje y los procedimientos parlamentarios. Las dos aplicaciones que culminan esta filosofía se llaman respectivamente Zabalik y Parte Hartu, que significan, respectivamente, "abierto" y "participa" en lengua vasca.

En primer programa permite a cualquier usuario privado o institucional seleccionar los temas y/o iniciativas parlamentarias que le interesen, suscribirse a ellas y recibir semanalmente cualquier variación que les afecte. Los mensajes ofrecen al usuario enlaces con los expedientes digitales que contienen la información que han solicitado. Por ello le permiten acceder a toda la información desde el inicio al final de la tramitación. Estos expedientes incluyen documentación escrita y audiovisual. Los usuarios pueden, en consecuencia, revisar todos los materiales escritos con los que trabajan los parlamentarios y ver en diferido las sesiones de comisión o pleno de todos los debates que les interesan. El servicio incorpora además una previsión de las cuestiones seleccionadas por el usuario que se debatirán la semana entrante. De este modo se facilita el seguimiento de los debates,





que también se transmiten en directo por Internet. En este momento el Parlamento Vasco cuenta con una lista de cerca de 1.600 usuarios fijos de este servicio.

Zabalik permite además reservar la asistencia a los plenos en que se debatan iniciativas de interés para los usuarios, y ofrece un acceso directo al servicio de participación Participa-Parte Hartu, puesto en marcha a comienzos de 2007. Este servicio ofrece a los usuarios la posibilidad de plantear sus aportaciones o preguntas directamente a los grupos parlamentarios. Las iniciativas ciudadanas se publican y son igualmente respondidas en público por los parlamentarios. Hasta la fecha se han completado cerca de medio millar de propuestas ciudadanas, de las cuales se han contestado aproximadamente el 80 %. En un 20 % de los casos las propuestas han dado lugar a decisiones o gestiones concretas del cuerpo legislativo, tanto en el propio Parlamento como ante otras instituciones.

Para difundir estos servicios el Parlamento Vasco ha puesto en marcha el aula móvil, denominada Parlauto, que recorre los municipios del País Vasco. Un monitor especialmente entrenado explica a asociaciones, colectivos ciudadanos y público en general el funcionamiento de estas dos herramientas, en sesiones de trabajo de entre 20 minutos y media hora. En medio año han pasado por el autobús más de 400 grupos y organizaciones y cerca de 20.000 personas en más de 30 municipios del País Vasco. Esta estrategia se completará con el despliegue de estas posibilidades, en los próximos años, en televisión digital.

El Parlauto culmina la primera fase de un modelo de apertura diseñado en el seno de la Conferencia de Parlamentos Regionales Europeos (CALRE) para mejorar la apertura de las instituciones participativas a la sociedad y la ciudadanía, e incorpora además una vertiente de impulso del valor de la participación cívica en los asuntos públicos. Es esta cualidad integral de la campaña, su planteamiento personalizado y segmentado y la novedad de los servicios que difunde lo que ha colocado esta iniciativa en disposición de merecer semejante premio. En su periodo de funcionamiento el Parlauto recorrerá más de medio centenar de municipios de la Comunidad vasca.

La experiencia del Parlauto se ha visto acompañada además con una *demo* del servicio de voto electrónico igualmente diseñada en Euskadi, mediante la cual los asistentes en el foro de Issy eligen estos días los canales que, en su opinión, tendrán más futuro como mecanismos de intercambio de conocimientos e información. El sistema Demotek, una urna dotada de un lector de votos y un equipo de transmisión de datos que permite agilizar el escrutinio, aprovechará así este escaparate para mostrar su operatividad.

PARA CONCERTAR ENTREVISTAS IN SITU O GRABADAS CON LA PRESIDENTA DEL PARLAMENTO,  
CONECTAR CON EL TFNO: 679484376.

